



BBUP-K KUDEATZEN DITUEN TELEKOMUNIKAZIOEN, URRUNEKO ESTAZIOEN, DATALOGGEREN ETA UDAL-SAREEN TELEKONTROLERAKO SCADA SISTEMAREN MANTENTZE-LANA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA (ESPEDIENTE-ZK.: 3243).

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Alejandro Vicente Moro
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Gaur egun, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Udal Sareen Zuzendariordetzak gainbegiratze- eta kontrol-sistema du Bizkaia osoan hauek monitorizatzeko: emariak eta biltegien maila neurtzeko 700 Datalogger baino gehiago, ponpaketetarako 60 automata, presioaren kudeaketa dinamikoa kontrolatzeko 57 ekipo, presioak neurtzeko 300 Datalogger eta sareko kloroa neurtzeko 30 ekipo. Masermic, Mejoras Energéticas, Bermad, TFS y autómatas Schneider Electric, Sofrel eta Siemens fabrikatzaileen Datalogger horiek Front-End baten bidez zentralizatutako kontrol-postu batetik monitorizatzen dira eta, ondoren, Wonderwarean oinarritutako Scada batean integratuta. Scada horrek datuak esportatzen ditu, analisiak eta iragarpen adimendunak kudeatzeko sisteman bistaratzeko eta tratatzeko. Sistema horrek, oro har, honako hauek ditu lotuta: Dataloggerrak eta automatak programatzeko lanak, ekipo horien eta Front-Endaren arteko komunikazioen konfigurazioa, ekipo horiek bistaratzeko tresnen garapena eta integrazioa, eta, ondoren, lortutako datuen kudeaketa eta ustiapena, alarmen aurreko jarduketak eta esportazioa, aditu batek tratatzeko. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da mantentze-lan zuzentzaile eta ebolutibo batzuk egitea, egungo Datalogger- eta telekontrol-sistema eraginkortasun-egoera ezin hobean egon dadin.

2.- Bete beharreko premiak: BBUPk hitzarmenak sinatu ditu edateko ura banatzeko 89 udalerritako udal-sarea kudeatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko, eta kontratu honen helburua da telekontrola ustiatzeko eta mantentzeko beharrei erantzutea. Jarduera horren irismena bitarteko tekniko osagarriak dira, eta kanpoan eskuratu behar dira kontratu bidez, BBUPren antolamenduaren eta langileen ezaugarriak direla-eta.

3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Ez da egokitzen jotzen hura lotetan banatzea; izan ere, elkarri lotutako jarduketak dituzten eta koordinazio bikainaren beharra duten lan batzuk



B.- KONTRATUAREN XEDEA

aurreikusten dira, jarduketa-zuzentzaile eta ebolutiboak koordinatzeko beharra dakartelako, eta hori ezinezkoa izango litzateke lotetan zatituz gero eta kontratista batek baino gehiagok gauzatuz gero. Lan horiek modu independentean egiteak zaildu egingo luke lanak egitea, eta lanen epea nabarmen luzatuko luke.

4.- CPV: 31644000-2 Hainbat datu-erregistratzaile

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI ☒ EZ

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HIRU MILA LAUREHUN ETA BERROGEI EURO (923.440,00 EURO), BEZik GABE.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 2.539.460,00 EURO

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

Balio zenbatetsiak barne hartzen du gauzatu beharreko ale-kopurua handitzea, kontratuaren prezioaren % 10eraino, SPKLren 309. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeina ez baita aldaketatzat hartuko.

3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 221.99.161.00 €

- 2026. urtea: 192.383,00 €
- 2027. urtea: 461.720,00 €
- 2028. urtea: 269.337,00 €

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI ☒ Ez

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

Funts-mota: Elkarrekin finantzatzeko %:

7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez .

8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: Bi (2) URTE.

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

☒ BAI ☐ EZ; HIRU (3) LUZAPEN, BAKOITZA URTE (1) BATEKOA.

4.-Berme-epea: URTE (1) BAT

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (461.172,00 €).

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak, egikaritze onaren ziurtagirien bidez abalatuta. Halaber, gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izan beharko da. (323.204,00 €).

Honako hauek egiaztatu beharko dituzte:

- Ziurtagirien akreditazioa eta Wonderwareko komunikazioetako eta SCADAko teknikariaren prestakuntza.
- Partner Empresarial Schnedier, Sofrel, Masermic, Mejoras Energéticas ziurtagiriak edo konpromisoak.
- Enpresak Wonderwareren "Archestra" ziurtagiria izan behar du, Scadan lan egin ahal izateko.
- ISO 27001.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria, bereziki azpimarratuz espedientearen xedearekin zerikusia duten lanak behar bezala gauzatzeko jarraitu beharreko metodologia. Lizitatzailerak kontratuaren eskura jarritako bitartekoak eta azpiegitura teknikoak, eta, ondoren, kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna. Kontratura bideratutako ekipoen erabilgarritasuna eta biltegiatze-proposamena. Espedientearen xede diren atazak egiteko hardware eta software tresnen erabilgarritasuna eta deskribapena.

b) Esleitutako talde teknikoaren osaera eta antolaketa, kideen kualifikazioa. Curriculum vitaeak, ziurtagirien egiaztagiria eta kontratuaren gaiarekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroak erantsiko dira. NIS 2 betetzeko eta OT zibersegurtasun-mailak betetzeko jardunbide egokiak



BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

betetze aldera, zibersegurtasunaren arloan indarreko ziurtagiriak dituen aholkularitzaren eskuragarritasuna baloratuko da. Curriculum vitae eta ziurtagirien egiaztagirak erantsiko dira. Lizitatzaillearen proposamena, egon daitezkeen lan-puntuei eta ordezkapenei aurre egiteko.

Gehieneko orrialde-kopurua (alde bakarrean idatzita) 30 izango da, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 30 orrialdeen barnean zenbatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

Muga horrek ez du eraginik talde teknikoko kideen curriculum vitaean.

Aurreko baldintzatzailea betetzen ez bada, balorazioa zigortuko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Kontratuaren aurrekontua.

Kontratistak Aurrekontuaren eta Eskaintzaren eranskinean jasotako orria osatuko du. "Prezioa" zutabean, "Eskaintza" apartatuan, kontzeptu bakoitzeko prezio unitarioa eskaintzeko. "Neurketa" apartatukoekin biderkatuta, betearazpenaren aurrekontu partzialak edo kontzeptu bakoitzeko aurrekontu osoak lortuko dira. Betearazpenaren aurrekontu partzialen baturak osatuko du eskaintza ekonomikoa.

Kontzeptu bakoitzerako eskaintako prezioei baja eman ahal izango zaie. ORDEZKO PIEZEN ERANSKINEAN deskontuaren % bat eskainiko da, eta deskontuaren haztapen osoa (DPI) gainordainen poltsan aurreikusitako zenbatekoari aplikatuko zaio, eta balio hori eskaintzari gehituko zaio eskaintza ekonomikoa osatuko duen azken prezioa kalkulatzeko.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Presidentea:
Ekaitz Mentsaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

a) Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria (34 puntu)

- a. Espedientearen xedearekin zerikusia duten lanak behar bezala egiteko jarraitu beharreko metodologia. (15 puntu)
- b. Lizitatzailleak kontratuaren eskura jarritako bitartekoak eta azpiegitura teknikoa, eta, ondoren, kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna. (3 puntu)
- c. Kontraturako ekipoen erabilgarritasuna eta biltegiatze-proposamena. (8 puntu)
- d. Espedientearen xede diren atazak egiteko hardware eta software tresnen erabilgarritasuna eta deskribapena. (8 puntu)

b) Talde teknikoaren osaera eta antolaketa (16 puntu)

- a. Subrogatu ezin diren langileen "3. taldea" osatzen dutenen kualifikazioa eta egokitzapena. (6 puntu)
- b. 2. NSA eta OT zibersegurtasun-mailak betetzeko jardunbide egokiak betetze aldera, zibersegurtasunaren arloan indarrean dauden ziurtagiriak dituen aholkularitzaren



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

eskuragarritasuna baloratuko da. (7 puntu)

ISA/IEC 62443 CFS-Certificate1

ISA/IEC 62443 CRAS-Certificate2

c. Lizitatzaillearen proposamena, egon daitezkeen lan-puntei eta ordezkapenei aurre egiteko.(3 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran bizi diren langileen ehuneko handiena, eta, berdinketa egonez gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusioko langileen kopuru handiena nagusituko da.
- Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituen.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituen.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzat joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enprekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertze arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Bai.

Lizitazio honen xede den kontratua segidako traktuko espedientea da, eta Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren hitzarmen kolektiboa du (hitzarmenaren kodea: 48001985011981).

Administrazio-baldintza berezien pleguaren eranskinean, subrogatu daitezkeen langileen zerrenda gehitu dugu.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat. Kontratistaren izenean jarduteko edo berau ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian.